

UDALAK PROPOSAMENEI EMANDAKO ERANTZUNAK

1. Aurreko bileran hartutako konpromisoen egoera aztertu.

LOKALA:

Plazako lokaletako batean lekua izango duzue. Datozen egunetan zehaztuko da non.

KOFRADIETAKO ARAZOAK / ESKAERAK / PROPOSAMENAK:

SAN MARKO KOFRADIA:

ERREPIDEA

- Bidea egoera txarrean dela eta, konponketa bat eskatzen da Kontu hau konponduta edo konpontze bidean dago.


SANTA MAÑA:

ARGITERIA

- Arriandiko aisialdi gunean argiteriarekin arazoak, gauetan argirik ez. Honelako arazo eta eskaerak, ahal bada mesedez, itxaron orde, lurreta zabaltzen app-aren bidez edo SAKE-ra bideratu eta lehenago jarri daiteke konponbidea.
- N634-aren azpitik igarotzen den tunelean argirik ez. Abisatuta dago. Hala ere, esan bezela app-tik edo SAKE-tik egiten ohitu.

ERREPIDEA

- N634-a eta poligonoa "lotzen" dituen auzobidea (Arriandi 15etik-Arriandi 23ra doana) egoera txarrean dago, konponketa bat eskatzen da.



Mesedez, kofradien bidez edo eskaera egin duenak zuzenean, tokia zehaztea eskatzen da, egoera aztertu eta konponbidea emateko.

- N634-rako irteeretan belarra moztea, ikus eremua asko mugatzen du eta arriskutsu dago zenbait tokitan.

Azpikontrotekin arazoak izan dituzte baina ahal izan den neurrian konponbidea eman zaio.

ZABOR LEKUAK

- Zabor leku gehiago jartzea eskatzen da, ez omen daude nahikoa.
- Zabor ontzien eta inguruaren egoera txarra da (Arriandi eta Gaztañatza). Horri arreta gehiago jartzea eskatzen da.

Mankomunitatearen eskumena da eta udaletxetik eskaera eginda dago.

Konpondu ez baldin bada, berriz eskatuko da.

OROZKETA:


BESTELAKOAK

- Eskolako sapaia egoera txarrean dago, zulatuta eta erortzen ari da. Konponketa eskatzen da.

Oraindik egin ez bada ere, begiratzera joatekoak dira.

- Txoko inguruko eta bide bazterretako belarrak moztea eskatzen da. Ez da behar bestetan mozten eta utzikeria sentsazioa ematen du.

Azpikontrotekin arazoak izan dituzte baina ahal izan den neurrian konponbidea eman zaio.



IURRETA:

ZABOR LEKUAK

- Maspe kaleko zabor lekua zebrabidearen ondoan dago eta ikus eremua mugatzen du. Oso arriskutsu dago.

[Auzokideen aldetik proposamen adostu bat bidaltzea eskatzen dugu, zaborraren kontuan batzuentzat ona dena bestreentzan ez delako hain ona.](#)

- Ur txorroten ondoan dagoen zabor lekua, askotan zikin egoten da eta umeak ibiltzen dira txorrorekin jolasean eta zaborraren inguruan bueltaka. Eremu hori, estali, egokitu, aldatu,... Soluzioren bat ematea eskatzen da.

[Ez dugu hain gaizki ikusten zabor lekua, uste dugu jendeak erabilera egokia egin ezker nahikoa dela.](#)

BESTELAKOAK

- Herriguneko lurzorua, aldizka (beharraren arabera) presio bidezko ur txorrorez garbitzea. Oso zikin ikusten omen da.


[Garbitu da.](#)

- Aparkaleku berrirako sarrera-irteerako bidea oso estua da eta ez dira bi kotxe kabitzen. Horrez gain, bizikleten eta oinezkoen bidea ere badago eta oso arriskutsu dago. Beharrezko moldaketak egitea eskatzen da.

[Uste dugu arrazioa duzuela eta irtenbidea bilatu nahian gabiltza.](#)

GOIURIA:

ZABOR LEKUAK



- Zabor ontzien egoera txarra da eta ingurua oso zikin egoten da. Auzokide bat arduratzen da tukuntasuna mantentzeaz eta horrek ez luke horrela izan behar.

Mankomunitatearen eskumena da eta udaletxetik eskaera eginda dago.

Konpondu ez baldin bada, berriz eskatuko da.

ARGITERIA

- Luku auzoko baserri batzuek oraindik ez daukate argiteria publikorik.

Begiratzen ari gara eta erantzun bat emango diogu

URA

- Lukurako sarreran dagoen ur biltegiaren (depositoa) ondoan, auzokide batek bere lursailaren erabilpena baimentzen du iturri bat jarri eta erabilera publikorako. Jende asko ibiltzen da, oinez edo bizikletan eta bide osoan ez dago iturri bat bera ere.

Momentuz ezinezko moduan ikusten dugu. Ermita ondoko iturriaren etxejabe elkartearekin adostasunen bat bilatzea hobesten dugu.

- Goiuriko hiribilduan, aspaldikoak dira uraren inguruko arazoak. Hodi zahar bat dago aldatzea aurreikusita dagoena baina urteak joan, urteak etorri, aldatu ez dena. Hodia aldatzea eskatzen da, hura aldatu ezkerro, asko hobetuko bailitzateke egoera.

Iragazkia jarrita dago, obrarako proiektua ere eginda dago, hala ere bide pribatutik pasatu behar da eta guztien baimenaren zain gaude.

BESTELAKOAK

- Udaletxearen eskumena ez dela badakigun arren, herriko beste eremu batzuetan egin diren azpiegiturak ikusita, dagokion erakundeari, gutxienez Goiuriko hiribilduraino (ahal balitz Garai herriraino) helduko litzatekeen bidegorri baten eskaera ofiziala eta horren aldeko indarra



egitea eskatzen da. Jende asko ibiltzen da BI-3341 errepidean, bai oinez, zein bizikletan eta oso egoera arriskutsuak ematen dira egunero.

[Foru Aldundiarekin harremanetan ari gara eta momentuz ezin dela esan badigute ere, ez dugu baztertzen horri vuelta bat gehiago ematea.](#)

- Badago mendi bide bat, Goiuriko kofradian zehar, hainbat biztanleren lursailetatik pasatzen dena eta inoiz ez omen da hortik biderik izan, gainera hainbat aldiz aurkitu dituzte bide hori “garbitzearen” ondorioz hainbat zuhaixka moztuta. Udalak zerbait baleki, informazioa eskatzen da.

[Guk ez dakigu nor ari den. Ez daukagu horren ezagutzarik.](#)

ESKAERA OROKORRAK:

- Bide bazterretako belarrak moztu eta jarraipena egin.

[Azpikontratekin arazoak izan dituzte baina ahal izan den neurrian konponbidea eman zaio.](#)

- AUZOA-HERRI / HERRIA-AUZO ekimenean parte hartzeko gonbidapena.

[Aztertzen ari gara eta komizioetatik pasa ondoren erabakiko dugu.](#)

- Auzoetako jaietarako edo bestelako ekitaldietarako, udaletxeak komun portatil batzuk eta karpa bat erosteko proposamena.
Beharrezkoa denean udalak azpiegitura hauek jartzen dituen arren, herrian dauden beharrak ikusita, udalak bere azpiegitura propioak izatea askoz ekonomikoagoa eta eraginkorragoa dela deritzogu.
Izan baitira kasuak, beharrezkoa izan arren, kostuaren aitzakia jarrita, udaletxetik komunik jarri ez direnak edo kudeaketa udalaren esku ez delako egon, bi karpa aldi berean alokatuta izan direna nahiz eta auzo batean jadanik jaiak bukatuta egon.

[Kontuak atera ditugu eta alokatzea baino askoz garestiago ateratzen da.](#)